2023AN UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO LURRALDE-EREMUAN HONDAKINEN PREBENTZIO-PLANEKO NEURRIAK – HONDAKINEN PREBENTZIO ETA BERRERABILPENAREKIN ETA SENTSIBILIZAZIO-ESTRATEGIAK ETA -KANPAINAK EGITEAREKIN LOTUTAKOAK– AURRERA ERAMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

AURKIBIDEA

I. TITULUA. ALDERDI OROKORRAK 2

1. KONTRATUAREN XEDEA 2
2. LURRALDE-EREMUA 2
3. JANARI-HONDAKINAK MURRIZTEA, EKINTZA-PLANAREN BIGARREN FASEA 2
4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN PAPER-HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEA 3
5. UDAL BULEGO ETA EKIPAMENDUETAN ERABILERA BAKARREKO ONTZIEN ERABILERA MURRIZTU DADIN SUSTATZEA 5
6. EKITALDI ETA EKINTZA PUBLIKOEN ANBIENTALIZAZIOA 6
7. 2023-2024 IKASTURTEAN ZARAUTZ, ZESTOA ETA ZUMAIAKO IKASTETXEETAN AGENDA 2030 PROGRAMA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA 6
8. 2023-2024 IKASTURTEAN UROLA KOSTAKO IKASTETXEETAN HIRI-HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATZEKO ETA KONPOSTAJEA EZARTZEKO EKINTZAK DINAMIZATZEKO ZERBITZUA 9
9. ETXEKO HONDAKINAK BIRZIKLATZEKO HERRITARREI ZUZENDUTAKO KANPAINA 12

II. TITULUA LANGILEAK, BITARTEKO MATERIALAK ETA LANEN ZUZENDARITZA ETA GAINBEGIRATZEA 16

10. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK 16
11. AMAIERAKO MEMORIA 17

ERANSKINAK

1 ERANSKINA: JANARI-HONDAKINEN DIAGNOSIA

2. ERANSKINA: JANARI-HONDAKINEI BURUZKO EKINTZA-PLANA

3. ERANSKINA: 2021-2022 IKASTURTEKO AGENDA 2030 PROGRAMARI BURUZKO MEMORIA

3. ERANSKINA: 2021-2022 IKASTURTEKO ZISARE PROGRAMAREN MEMORIA

5. ERANSKINA: UROLA KOSTAKO ETXEKO HONDAKINEN BILKETARI BURUZKO DATUAK (2018-2022)

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus • www.urolakosta.eus

2023AN UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO LURRALDE-EREMUAN HONDAKINEN PREBENTZIO-PLANEKO NEURRIAK – HONDAKINEN PREBENTZIO ETA BERRERABILPENAREKIN ETA SENTSIBILIZAZIO-ESTRATEGIAK ETA -KANPAINAK EGITEAREKIN LOTUTAKOAK– AURRERA ERAMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

I. TITULUA. ALDERDI OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Urola Kostako Udal Elkarteko lurralde-eremuan hondakinen prebentzio-planeko neurriak – hondakinen prebentzio eta berrerabilpenarekin eta sentsibilizazio-estrategiak eta -kanpainak egitearekin lotutakoak– aurrera eramateko zerbitzua ematea da baldintza-agiri honekin egingo den kontratuaren xedea, beti ere, baldintza teknikoen agiri honekin eta administrazio-baldintza partikularren agiriarekin adostasunean, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoak emandako jarraibideak betez, eta, halaber, kontratuaren adjudikaziodunak bere eskaintzan adierazitakoarekin bat.

2. LURRALDE-EREMUA

Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten udalerri guztiek osatutakoa izango da kontratu honek xede dituen zerbitzuen lurralde-eremua.

II. TITULUA LANEN DESKRIBAPENA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

3. JANARI-HONDAKINAK MURRIZTEA, EKINTZA-PLANAREN BIGARREN FASEA

3.1. Helburua

Hondakin gisa kudeatutako elikagai kopurua murriztea, soberakinak aprobetxatzeko beharra azpimarratuz, soberakinak sortzea saihestuz eta herritarrak janari-hondakinen arloan kontzientziatuz.

3.2. Justifikazioa

Gaur egun, elikagaien ehuneko handi bat bota egiten da, kontsumorako egokia izan arren. Ekoizpen-kate osoan sortzen dira janari-soberakin horiek, hau da, elikagaien garraioan nahiz kontsumoan.

Janari-hondakinaren diagnosian (**1. eranskina**) eta lehenengo ekintza-planean (**2. eranskina**) oinarrituz, soberakin horiek hondakin ez bihurtzea izango da helburu nagusia, eta, horretarako, soberakin horiek egoera txarrean egon baino lehen kontsumitzea.

Janari-hondakin kopuru handiak sortzen dituzten lekuetara bideratuko da ekintza (elikadura-sektoreko enpresak, supermerkatu handiak eta ertainak, eskoletako jangelak…).

3.3. Hartzailea

- 5 udaletako herritarrak
- Janari-hondakinak sortzen dituzten merkataritza-, hezkuntza- eta gizarte-jarduerak

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

3.4. Jardueraren deskribapena

Besteak beste, mota hauetako jarduerak sustatu daitezke:

- Janari-soberakina murrizteko tailerrak.
- Ikastetxeetan egiteko ekintzak.
- Komunikazio-kanpaina (Udal Elkartearen webgunean, sare sozialetan, tokiko prentsan, etab.)

Enpresa lizitatzaileei dagokie proposatutako helburua betetzeko eraginkorrenak iruditzen zaizkien ekintzak proposatzea. Hala, xehetasun osoz definitu behar dute jarduerari, bitartekoei eta langileei buruzko proiektua.

3.5. Beharrezko baliabideak

Diagnosia eta lehenengo ekintza-plana aztertu ondoren zehazturiko ekintzen araberakoa izango da. Ekintza-planean, honako hauek jaso beharko dira, gutxienez: material didaktikoa, proiektua zabaltzeko elementuak eta informazio-oharrak.

3.6. Tenporizazioa

Egikaritze-epea 2 hilabetekoa izango da (2023ko irailetik 2023ko urrira).

3.7. Adierazleak

- Eskainitako tailer kopurua.
- Ekintzetan parte hartzen duten ikasleen kopurua.
- Sortutako hedapen-elementuen kopurua.

4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN PAPER-HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEA

4.1. Helburua

Bulegoetan paper gutxiago erabiltzeko eta informazioaren desmaterializazioa sustatzeko neurriak ezartzea.

4.2. Justifikazioa

2022an, 2.500 paper eta kartoi tona inguru sortu ziren Urola Kostako Udal Elkartean.

Bulegoetan (publikoak eta pribatuak) eta paper asko kontsumitzen den lekuetan (adibidez, ikastetxeak) ekintza asko egin daitezke paperaren kontsumoa murrizteko eta informazioa modu egokian kudeatzeko (desmaterializazioa eta informazio- eta komunikazio-teknologia berriak) edo praktika egokiak martxan jartzeko.

4.3. Hartzailea

5 udalerrietako administrazioa eta organismo publikoak.

4.4. Jardueraren deskribapena

Udaletako eta Udal Elkarteko bulegoetan sortutako paper eta kartoi hondakinen kopuruari buruzko datu espezifikoei buruzko datuak izan ez arren, eta jakin arren, ziurrenik, erakunde horietan paper kontsumoa murrizteak ez duela eragin nabarmenik izango eskualdeko paper-kontsumoaren murrizketan, Udal Elkarteak

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

hondakinak murrizteko erakutsi beharreko erantzukizunean eta eman beharreko ereduan oinarritzen da jarduera hau, hau da, herritarrak eta beste erakunde eta organismo publikoak hondakinen prebentzio arloan kontzientziatzeko balio du.

Lehenik eta behin, barneko ingurumen-diagnostiko bat egin beharko litzateke, paper kontsumo handia eragiten duten eguneroko jarduerak eta prozedurak aztertuz eta kontsumo hori murrizteko edo desagerrarazteko egin daitekeena zehaztuz. Azterketa hori amaitu ondoren, lortutako emaitzak zabaltzeko hedapen-ekintzak egin beharko dira.

Udal Elkarteko bulegoetako langile eta politikarien artean nahiz eskualdeko udaletxeetako bulego, organismo eta ekipamendu publikoen artean (hezkuntzakoak…) papera erabiltzeko eta aurrezteko jardunbide egokiak zabaltzean datza jarduera hau.

Jardunbide egokien protokolo edo eskuliburu hori posta elektroniko bidez bidal dakieke erakunde eta organismoetako langileei. Halaber, bertsio bisual batean ere inprima daiteke, eta kartel formatuan laburbildu, bulegoetan jartzeko eta langile guztiei gogorarazteko.

Besteak beste, jardunbide egoki hauek susta daitezke, batez ere, inprimatzeko protokolo egoki bat egiteko:

- Bulegoan erretilu bat edukitzea alde batetik erabilita dauden paper erabiliekin, oharretarako paper, barne-dokumentu, zirriborro… bezala erabiltzeko.
- Dokumentuen txantiloiak berrikusi eta egokitzea, ezaugarri batzuk kontuan hartuz; besteak beste: letra tamaina, marjinak edo aldebiko zenbakitzea.
- Artxibo elektroniko bat izatea eta paperezko kopiak saihestea.
- Banakako kopiak egin beharrean, dokumentu partekatuak erabiltzea eta ondo artxibatuko dituen arduradun bat izendatzea.
- Modu lehenetsian, aldebiko eta zuri beltzeko inprimaketa erabiltzea.
- Inprimatzeko paperen gramajeak berrikusi, eta gramaje batzukoak erabiltzea.
- Barne-dokumentuak zirriborro kalitatearekin inprimatzea, tinta aurrezteko.
- Bertsio elektronikoetako argitalpenetako harpidetzak sustatzea.

Zeharka, bulego eta udal-zerbitzu guztietan paper birziklatua erosteko betebeharra ezartzea gomendatzen da, kasu berezietarako izan ezik.

4.5. Beharrezko baliabideak

Baldintza-agiri honetan adierazitakoa betez enpresa lizitatzailearen proposamenean jasotako ekintzen araberakoak izango dira. Gutxienez, barne-protokolo bat edo jardunbide egokien eskuliburu bat egin beharko da eta proiektua zabaltzeko elementuak zehaztu beharko dira, Udal Elkartearentzat, udalentzat eta beste organismo eta ekipamendu publiko batzuentzat.

4.6. Tenporizazioa

Egikaritze-epea 2 hilabetekoa izango da (2024ko urtarriletik 2024ko otsailera).

4.7. Adierazleak

- Murriztutako paper-hondakinen kopurua (orokorra eta pertsonako).
- Jardunbide egokiak martxan jarri dituzten administrazioen (eta langileen) kopurua.
- Jardunbide egokiak martxan jarri bitartean erositako eta kontsumitutako paper kopuruaren bilakaera.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

5. UDAL BULEGO ETA EKIPAMENDUETAN ERABILERA BAKARREKO ONTZIEN ERABILERA MURRIZTU DADIN SUSTATZEA

5.1. Helburua

Ontziratutako uraren ordez, txorrotako ura bultzatzea, eta, hala, botilako urak sortutako plastikozko botilen hondakinak eta, aldi berean, horiek fabrikatu, bildu eta azken tratamendua ematean sortutako inpaktuak murriztea.

5.2. Justifikazioa

Udalerri batzuetan, txorrotako uraren ezaugarri organoleptikoak ez dira herritar guztien gustukoak eta, ondorioz, ontziratutako ur gehiago kontsumitzen da.

Ur botila eta txanbilen hondakinek eragina dute bilketa zerbitzuan. Ontzi horiek nahiko bolumen handia izaten dute, eta azkar betetzen dituzte edukiontziak. Ondorioz, tonako bilketaren kostuak handiagoak dira beste frakzio batzuenak baino.

5.3. Hartzailea

Herritarrak eta Udal Elkarteko langileak.

5.4. Jardueraren deskribapena

Ekintza honen bidez, botilako uraren ordez ontzi kopuru txikiagoa sortzen duten sistemen aldeko mekanismoak sustatu nahi dira. Zehazki, udal eraikinetan txorrotako uraren erabilera sustatzea da helburua.

Txorrotako uraren kontsumoa bultzatzeko, ekintza hauek egin daitezke, besteak beste (dena den, ekipamenduaren arabera, beste batzuk ere egin ahal izango dira):.

- Txorrotako uraren eta botilako uraren kalitate-parametroen azterketa konparatiboa, eta iragazpen, arazketa eta osmosi sistemen azterketa.
- Ateratako ondorio nagusiak udal ekipamenduetako langileen eta herritarren artean zabaltzea.

5.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzaileak baldintza-agiri honetan zehazturikoa betez egindako proposamenetik eratorritako ekintzen araberakoak izango dira. Gutxienez, jardunbide egokien eskuliburua egitea proposatu beharko da, eta eskuliburu horretan, uraren kalitate-parametroen azterketa konparatiboaren emaitzak jaso beharko dira, Udal Elkartearentzat, udalentzat eta beste organismo eta ekipamendu publiko batzuentzat.

5.6. Tenporizazioa

Egikaritze-epea 2 hilabetekoa izango da (2024ko urtarriletik 2024ko otsailera).

5.7. Adierazleak

- Banatutako eskuliburuen kopurua.
- Kontsumitutako sareko ur litroen kalkulua.
- Aurreztutako ontzien kopuruaren eta pisuaren kalkulua.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

6. EKITALDI ETA EKINTZA PUBLIKOEN ANBIENTALIZAZIOA

6.1. Helburua

Festa, azoka, merkatu eta ekintza publikoetan ingurumen-praktika egokiak zabaldu eta normalizatzea, jardunbide egokien eskuliburu bat idatziz.

6.2. Justifikazioa

Udal Elkarteko udalerrietan egiten diren festa eta ekintza herrikoi askotan, ontzi, edalontzi, mahai-tresna edota platerak erabiltzen dira edaria eta janaria zerbitzatzeko, eta gauza horien balio-bizitza ekitaldi bakarrekoa izaten da. Ekitaldia amaitu ondoren, ontziteriako pieza guztiak hondakin bihurtu ohi dira.

Bestalde, horrelako ekitaldiak egiten direnean, hondakinak birziklatu eta eremuak garbi mantentzeko ohitura sustatu beharra dago.

6.3. Hartzailea

- Udalak.
- Hainbat formatutako jarduerak (publikoak nahiz pribatuak) antolatzen dituzten erakundeak.

6.4. Jardueraren deskribapena

Ingurumen arloko jardunbide egokiak zabaldu eta normalizatzeko, honako proposamen hauek egiten dira:

- Festa-ekitaldiak, ekitaldi herrikoiak eta bestelako ekintza publikoak (eraginagatik, jende kopuruagatik… garrantzitsutzat jotzen direnak) antolatzen dituzten eragileak antolatu eta koordinatzea, hondakinak prebenitzeko helburuak eta jarduerak zehaztu ditzaten.
- Ekitaldietako ingurumen-arduradunen talde bat osatzea, eta ekitaldi horien aurretik eta ekitaldiak iraun bitartean informazioa emateko eta antolatzeko espazioak zehaztea, adostutako jarduerak bete daitezen bermatzeko.
- Ekitaldien anbientalizaziorako **jardunbide egokien eskuliburu** bat idaztea, Udal Elkarteko udalei erraztasunak emateko hondakinak prebenitzeko neurriak ezartzeko orduan.

6.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzaileak baldintza-agiri honetan zehazturikoa betez egindako proposamenetik eratorritako ekintzen araberakoak izango dira. Gutxienez, jardunbide egokien eskuliburua egitea eta ekitaldien antolatzaileak koordinatzea proposatu beharko da.

6.6. Tenporizazioa

Egikaritze-epea 2 hilabetekoa izango da (2024ko martxotik 2024ko apirilera).

6.7. Adierazleak

- Anbientalizatutako ekitaldi eta ekintza kopurua.
- Eskuliburua beren prozedura eta udal ordenantzetan txertatu duten udalak.
- Ekintzarekin lotutako hondakinen prebentzioa.

7. 2023-2024 IKASTURTEAN ZARAUTZ, ZESTOA ETA ZUMAIAKO IKASTETXEETAN AGENDA 2030 PROGRAMA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA

7.1. Helburua

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

2023-2024 ikasturtean Zarautz, Zestoa eta Zumaiako ikastetxeetan Eskola Agenda 2030 programa dinamizatu eta aurrera eramateko ingurumen-hezkuntzan espezializatutako enpresa bat kontratatzeko baldintza teknikoak zehaztea da baldintza-agiri honen helburua.

Hezkuntza-komunitatean garapen jasangarriarekiko konpromiso-egitura bat sortzea da Eskola Agenda 2030en helburua. Hori lortzeko, helburu espezifiko hauek bete behar dira:

- Hezkuntza-komunitatean ingurumenarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa lantzea tokiko mailan nahiz maila globalean.
- Ikastetxe eta udaletako ingurumen-problematika detektatu eta ezagutzea.
- Ikastetxea eta udalerria jasangarriago egitea.
- Ikastetxearen eta udal edo eskualdearen arteko lankidetza areagotzea.
- Ikasleei protagonismoa ematea eta ikastetxeko eta udaleko ingurumen-kalitatearekin lotutako gaietan parte hartzeko kultura sustatzea.
- Curriculuma garapen jasangarriak ezartzen dituen erronketara egokitzea.

Honekin batera atxikita dago 2021-2022 ikasturteko memoria (**4. eranskina**).

2022-2023 ikasturtean, lehen aldiz, Eskola Agenda 2030 bi ikasturtetan aurrera eramatea aurreikusi da. Hain zuzen, gai hau aukeratu da programa aurrera eramateko: ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA.

Hala, 2022-2023 ikasturtean, udal diagnostikoak, ekintza-planak eta foroak landuko dira, eta, datorren ikasturtean (2023-2024), ekintza-planak aurrera eraman eta segimendua egitea eta foro berriak egitea aurreikusten da.

7.2. Justifikazioa

Eskola Agenda 2030 jasangarritasunerako hezkuntza-programa bat da, Eusko Jaurlaritzako Ingurugelaren bidez sustatzen dena.

Ingurumen-hezkuntza eta ikasleen sentsibilitatea sustatzea eta garapen jasangarriko tokiko prozesuetan parte har dezaten bultzatzea da programaren helburua.

Eskola Agenda 2030ek hiru ardatz ditu:
- Curriculumaren berrikuntza – ikastetxearen kudeaketa jasangarria
- Partaidetza

Urola Kostako Agenda 2030 proiektua 2005-2006 ikasturtean jarri zen abian, Eskola Agenda 21 izenarekin. Eskola Agenda 21etik Eskola Agenda 2030erako trantsizioa 2019-2022 ikasturtean eraman zen aurrera.

Orduz geroztik, garapen jasangarriko helburuetan oinarritzen dira jarduerak.

7.3. Hartzailea

Kanpainaren hartzaile zuzenak Zarautz, Zestoa eta Zumaiako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak dira. Proiektuaren malgutasuna kontuan izanik, eta parte hartzen duten ikastetxeek eskatuz gero, Haur Hezkuntzako ikasleek ere ekimenean parte hartu ahal izango dute. Kasu horretan, kontratu honen adjudikaziodunak metodologia eta materiala egokitu beharko lituzke. Ikastetxe hauek hartuko dute parte Eskola Agenda 2030ean (zerrenda behin-behinekoa da):

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

UDALA	IKASTETXEA	IKASLE KOPURUA (guztira)
ZARAUT	ANTONIANO IKASTETXEA	546
ZARAUT	LA SALLE IKASTETXEA	672
ZARAUT	SALBATORE MITXELENA	910
ZARAUT	LIZARDI INSTITUTUA	390
ZARAUT	OROKIETA HERRI ESKOLA	450
ZARAUT	OTEITZA LIZEO POLITEKNIKOA	560
ZARAUT	MONTE ALBERTIA BHI	220
ZESTOA	CEP AIZARNA LHI	20
ZESTOA	CEP ARROA LHI	34
ZUMAIA	CEP OIKIA LHI	18
ZUMAIA	MARIA ETA JOSE IKASTETXEA	678
ZUMAIA	IES ZUMAIA BHI	366
GUZTIRA	12 IKASTETXE	4.864

7.4. Jardueraren deskribapena

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak definitu behar ditu programa eta metodologia.

Kontratuaren enpresa esleipenduna arduratuko da Agenda 2030eko lanez, gutxienez, alor hauetan:

A. Proiektua landu eta aurrera eramatea

Kontratuan, lan hauek jasotzen dira:

- Urola Kosta eskualdean Eskola Agenda 2030 aurrera eramaten laguntzea.
- Ikastetxeei laguntza teknikoa eskaintzea:
  - Irakasleei materialak aurkeztu eta horiek erabiltzeko prestakuntza ematea.
  - Ikastetxeei jarduerak programatzen laguntzea.
- Eskola Agenda 2030 koordinatzeko bileretara joatea eta, bilera horietan, kontratatutako lanarekin lotutako gaiak lantzea.
- Ikastetxeek emandako datuak jaso eta kudeatzea eta txostenak egitea.
- Batetik, ikastetxeen eta, bestetik, udalen eta Udal Elkartearen arteko interlokuzioa koordinatu eta bideratzea.
- Foroak monitorizatu, koordinatu eta aurkezpenak egiteko langileak jartzea.
- Beharrezkoak diren ikus-entzunezko aurkezpenak egitea, eskolako foroetan eta udal-ekitaldietan erabiltzeko.
- Toki-korporazioetan aurkeztuko diren dokumentuak idaztea.
- Baliabideak lantzea 2022-2023 ikasturtean udalei egindako proposamenei eta ikastetxeek hartutako konpromisoei segimendua egiteko.
- Aurreko ikasturtean Eskola Agenda 2030en barruan landutako gaiei buruz proposatutako ekimenak eta ekintzak aurrera eramateko proposamenak egitea.
- Ingurugela-CEIDArekin elkarlanean ekintza-plan bat definitzen laguntzea.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Ikastetxeei laguntza teknikoa eskaintzea, ekintza-planaren laburpenak egiteko eta ebaluazio-adierazleak zehazteko.
- Ikasleekin foroak antolatu eta egitea, eta udaletan aurkezpenak egitea, ikastetxeek landutako konpromiso eta ekimenei segimendua egiteko.
- Ikasturteko amaierako memoria bat egin eta entregatzea, ikasturte bakoitzean ikastetxeek udaletxeen laguntzarekin landutako konpromiso eta ekimenei egindako segimenduaren emaitzak biltzen dituena.

B. Ebaluazioa

Proiektua prozesu osoan zehar ebaluatu behar da, zehazturiko adierazleak kontuan hartuta. Lanen segimendu kualitatiboa nahiz kuantitatiboa egiteko erabiliko dira adierazle horiek (prozesu osoarena nahiz ikastetxe bakoitzean aurrera eramandako ekimenena).

C. Komunikazioa

Ikasturtean zehar, Eskola Agenda 2030en aurrerapenak gainerako herritarrei jakinarazteko materialak prestatu behar ditu kontratuaren jabeak, batez ere, udal foroak egin ondoren: prozesuaren hasiera, lanen garapena, parte hartzeko ekintzak, egindako proposamenak eta hartutako konpromisoak... Udal bakoitzera eta komunikabideetara egokitu beharko du informazioa.

Enpresak aurkeztutako proposamenean, informazioa zer unetan eta zer komunikabidetan emango den eta zer eduki mota izango duen zehaztu beharko da.

Enpresak prozesuaren nondik norakoen berri eman beharko die, une oro, Udal Elkarteari, udalei eta Ingurugelari.

7.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzaileak baldintza-agiri honetan zehazturikoa betez egindako proposamenetik eratorritako ekintzen araberakoak izango dira.

7.6. Tenporizazioa

Egikaritze-epea 10 hilabetekoa izango da (2023ko irailetik 2024ko ekainera).

7.7. Adierazleak

Programa osoan zehar aplikatuko duen etengabeko ebaluazio- eta segimendu-sistema diseinatu beharko du enpresa esleipendunak.

8. 2023-2024 IKASTURTEAN UROLA KOSTAKO IKASTETXEETAN HIRI-HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATZEKO ETA KONPOSTAJEA EZARTZEKO EKINTZAK DINAMIZATZEKO ZERBITZUA

8.1. Helburua

2023-2024 ikasturtean Urola Kosta eskualdeko ikastetxeetan konpostajea ezartzeko eta hiri-hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzeko ekintzak dinamizatzeko zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoak zehaztea da dokumentu honen helburua.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Hauek dira kanpainaren helburu zehatzak:

Hiri-hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzearekin lotutako helburuak:

- Sortzen ditugun hondakinen inguruan sentsibilizatzea.
- Hondakinak murriztu, berrerabili eta ondo bereizi daitezen eta hondakinen gaikako bilketa-zerbitzuak erabil daitezen bultzatzea.
- Azken urteetan Urola Kostan hiri-hondakinen sorkuntza, gaikako bilketa, birziklapen eta tratamenduaren emaitzak ezagutzera ematea.
- Ikasleen artean ingurumen-kontzientzia bultzatzea, batez ere, ikastetxeetan zakote-ontzi eta bilgarri berrerabilgarriak erabil ditzaten, erabilera bakarreko elikagai-bilgarrien hondakinak prebenitzeko.

Konpostajea ezartzeari dagokionez, hauek dira helburuak:

- Udalean konpostajea bultzatzea, materia organikoa kudeatzeko alternatiba gisa.
- Ikastetxeetako langileei eta ikasleei konpostaren bidez ikastetxean sortutako materia organikoa kudeatzearen garrantzia azaltzea.
- Ikastetxeko langileak eta ikasleak udaleko hondakinak kudeatu eta balorizatzeko lanean inplikatzea, sortzen dituzten hondakin organikoak tratatuz.

Beste helburu batzuk:

- Ikastetxean talde-lana bultzatzea, ikasleak, irakasleak eta langileak inplikatuz. Taldean metodologia bat jarraituz eta lan-tresna batzuk erabiliz lan egiten ikastea.
- Nekazaritza ekologikoa eta elikadura osasungarria sustatzea.
- Ikastetxean konpostajearen inguruan jasotako ezagutzak aplikatzea.

8.2. Justifikazioa

1997az geroztik, Urola Kostako Udal Elkartea hiri-hondakinak prebenitzeko eta gaika biltzeko hainbat kanpaina egiten ari da eskualdeko ikastetxeei zuzenduta.

2005az geroztik, hainbat proiektu eraman dira aurrera Urola Kosta eskualdean konposta bultatzeko, eta, guztira, 600 konpost-ontzi inguru banatu dira. Komunitateko konpostajeari dagokionez, hainbat esperientzia jarri dira martxan udaletan, eta, guztira, komunitateko konpostajea egiteko 15 puntu daude.

2014-2015 ikasturtean, beste pauso bat eman zuten, eta konpostajea ezartzeko kanpaina eraman zuten aurrera, ikastetxeetan hondakinen prebentzioa sustatzeko helburuarekin.

2015-2016 ikasturtean, berriz, hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko kanpainarekin batera, hondakinen prebentziorako konpostajea ezartzeko kanpaina eraman zen aurrera.
Ondorengo ikasturteetan, aurreko urteetan kanpainarekin jarraitu zen, baina 2020-2021an ez zen kanpainarik egin, Covid-19aren ondorioz, eta 2021-2022an, berriz ere martxan jarri zuten programa (**4. eranskina**).

Ikasturte honetan, erabilera bakarreko ontzien erabilera murriztu nahi da ikastetxeetan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan nahiz Bigarren Hezkuntzan), ikasleek etxetik ekarritako hamaiketakoek bilgarri-hondakin asko sortzen baitute. Gainerako hamaiketarako bilgarriak material desberdinetakoak izan daitezke, eta horietako batzuk birziklatzeko zailak eta ekoizpen garestikoak izaten dira, ekonomikoki nahiz ingurumenaren ikuspegitik.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

8.3. Hartzailea

Proiektua ikastetxe hauetara zuzenduko da (behin-behineko zerrenda):

UDALA	IKASTETXEA	LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO TALDEAK	DBH 1. MAILAKO TALDEAK
AIA	LARDIZABAL	1	0
GETARIA	ITURZAETA	2	0
ORIO	ORIOKO HERRI ESKOLA	2	2
	JUAN ZARAGUETA	1	1
ZARAUTZ	ANTONIANO	2	2
	LA SALLE	2	2
	SALBATORE MITXELENA	3	3
	LIZARDI	0	6
	OROKIETA HERRI ESKOLA	3	0
ZUMAIA	HERRI ESKOLA	4	5
	OIKIA LH4	1	0
	MARIA ETA JOSE	2	2
GUZTIRA	12	23	23

Konpostajea bultzatzeko proiektu honen hartzaileak Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleak izango dira (ikastetxeak erabakiz gero, beste ikasturte batean ere egin daitezke ekintzak), eta taula honetan adierazitako moduan antolatuko dira ekintzak (taulako datuak behin-behinekoak dira):

EKINTZA		LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA		DBH 1. MAILA	
		BAI/EZ	Kanpoko irakaslea/hezitzailea	BAI/EZ	Kanpoko irakaslea/hezitzailea
Hondakinen kudeaketa	Unitate didaktikoa	Bai	Irakaslea.	Bai	Irakaslea
	Garbigunera bisita	Bai	Kanpo hezitzailea	Ez	
Konpostaje prozesua	Unitate didaktikoa	Bai	Irakaslea	Bai	Irakaslea
	Saio praktikoa	Bai	Kanpo hezitzailea	Ez	
Laborategiko konpostajea	Unidad didáctica	Ez		Bai	Irakaslea
	Laborategiko 2 saio	Ez		Bai	Kanpo hezitzailea

8.4. Jardueraren deskribapena

Kontratuaren jabeak definitu behar du proiektuaren programa eta metodologia.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus • www.urolakosta.eus

Hiri-hondakinen murrizketa, berrerabilpen eta birziklapen alorrean gutxienez egin beharreko ekintzak:

- Ikasleei zuzendutako mezuetan hiri-hondakinak minimizatzeko (murriztu eta berrerabili) eta birziklatzeko jarrera bultzatu eta zabaltzea.
- Urola Kosta eskualdean martxan dauden hondakinak jasotzeko eta kudeatzeko zerbitzuak ezagutarazi eta azken urteetan eskualdean hiri-hondakinen sorkuntza, gaikako bilketa, birziklapen eta tratamendu arloan izandako datuen berri ematea.
- Ikastetxeei aukera ematea eskualdean dagoen hondakinak kudeatzeko instalazio bat bisitatzeko.
- Unitate didaktiko bat sortzea, ikastetxe guztientzako eskuragarriak diren material (formatu digitalekoak lehenetsita) eta baliabide hezitzaileekin, ikastetxeetan erabilera bakarreko ontzien erabilera murrizteko beharra lantzen duena (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan nahiz Bigarren Hezkuntzan).

Konpostajea ezartzea bultzatzeko, ekintza hauek eskaini beharko dira, gutxienez:

- Kanpaina modu egokian aurrera eraman dadin bermatzea, Udal Elkartearen eta ikastetxeen arteko koordinazio-sistema bat ezarriz.
- Ikastetxe bakoitzaren errealitatea eta beharrak aztertzea, arduradunekin harreman zuzena izanez.
- Lan-fase guztiak aurrera eramateko beharrezkoa den informazioa izatea.
- Lan-fase guztiak aurrera eramateko proposatutako protokoloak onartzea.
- Egutegia eta lan-plana zehaztea, ikastetxeen borondatea eta beharrak kontuan izanda.
- Txosten pedagogikoa eta konpostajearen koadernoko edukiak lantzea (Udal Elkarteak eskainiko ditu horien ereduak)
- Konpostaje-prozesuari segimendua egiteko bisitak.
- Komunikazio- eta hedapen-plana zehaztea.

8.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzaileak baldintza-agiri honetan zehazturikoa betez egindako proposamenetik eratorritako ekintzen araberakoak izango dira.

8.6. Tenporizazioa

Egikaritze-epea 10 hilabetekoa izango da (2023ko irailetik 2024ko ekainera).

8.7. Adierazleak

Programa osoan zehar aplikatuko duen etengabeko ebaluazio- eta segimendu-sistema diseinatu beharko du enpresa esleipendunak.

9. ETXEKO HONDAKINAK BIRZIKLATZEKO HERRITARREI ZUZENDUTAKO KANPAINA

9.2. Helburua

Etxeko hondakinak jatorrian gehiago bereiz ditzaten herritarrak sentsibilizatzeko eta informatzeko kanpaina aurrera eramatea da helburua, EBk birziklapenerako ezarritako prestaketa-mailetara iritsi ahal izateko.

Zerbitzu horrek honako ekintza hauek hartzen ditu bere baitan:

- Adierazitako jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren heziketa- eta dibulgazio-materialak (bitarteko digitalak barne) sortu, ekoitzi, erosi, hornitu, eman eta banatzea.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

- Online komunikazio-estrategia zabal bat martxan jartzea, aurretiaz egindako kanpainetako informazioa Urola Kostako Udal Elkarteko webgunean, sare sozialetan eta arreta-kanaletan dagoen informazioarekin lotuz eta bateratuz.
- 9.5 atalean deskribatutako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak egitea, beharrezko materialak banatu eta/edo ekoitzi, erosi eta hornitzea barne.
- Kanpainaren eta aurreikusitako sentsibilizazio-helburuak lortzeko neurri zuzentzaileen segimendua eta ebaluazioa egitea.
- Baldintza teknikoen agiri honetan deskribatzen dira ekintza guztiak aurrera eramateko beharrezkoak diren bitarteko logistikoak (aurreko kanpainetako edo kanpaina honetako biltegiratzeak, lekualdaketak, banaketa eta materialen garraioa barne), kontratuaren hasieran, kontratua aurrera eraman bitartean nahiz amaieran, baldintza-agiri honetan eta Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek adierazten duten moduan.

Sentsibilizazio-kanpainaren bitartez, honako helburu hauek lortu behar dira herritarren artean:

Komunikazio-helburu orokorrak:

- Herritarrei Urola Kostako Udal Elkarteak hondakinen arloan eskaintzen dituen politiken eta zerbitzu-kudeaketen berri ematea, eta aurrera eramaten diren ekimen, kanpaina eta jardueren berri ematea.
- Zerbitzu horiek eta herritarren bizi-kalitateari egiten dioten ekarpena eta, aldi berean, herritarrek parte hartzeko beharra ikusgai egin eta balioa ematea.
- Berrerabiltzeko eta birziklatzeko ohiturak areagotzea. Eranskinean jasotzen dira 2018-2022 epealdiko bilketa-datuak (**5. eranskina**).
- Sare sozialetan Udal Elkarteko eta kanpainako komunikazio-kanaletara bideratutako trafikoa sortzea eta jarraitzaileen komunitatea handitu eta fidelizatzea.

Helburu bereziak:

- Hondakinen kudeaketaren arloko lehentasunak ezagutzera ematea, ingurumen-legedian eta indarrean dagoen araudian jasotako helburuak betetzeko, eta eskualdeko ingurumena hobetzea, bizilagunen artean hondakin gutxiago sortzeko eta jatorrian bereizteko ohitura sustatuz.
- Eskualdeko hondakinak kudeatzeko sistemaren fase guztiak hobeto ezagutaraztea (kontainerizazioa, bilketa eta garraioa eta tratamendua), herritarrak sistema hori ondo erabil dezaten motibatzeko eta inplikatzeko. Hau da, etxeko edo kaleko edukiontzi mota bakoitzean edo Garbigune edo birziklapen-etxoletan zer hondakin bota behar diren gogoraraztea (organikoak, ontzi arinak, errefusa, papera-kartoia, beira, arropa eta oinetako erabiliak, landare-olioa, pilak…), eta, halaber, bereizketa hori egiteko azken helburua eta zalantzak argitzeko moduak jakitera ematea.
- Eskualdean jasotako hondakinen kopurua eta kalitatea hobetzea, berrerabilpena, birziklapena eta balorizazioa areagotzeko eta kalitate hobeko produktu birziklatuak lortzeko.
- Herritarren eskura jarritako elementuen berri ematea (edukiontziak, Garbiguneak, birziklapen-etxolak…).
- Ontzi arinen edukiontzian bildutako hondakinen kopurua eta kalitatea hobetzea. Helburu horrekin lotutako ekintza Ecoembes-ek gainbegiratu eta onartu beharko du.
- Beirazko ontzien edukiontzian bildutako hondakinen kopurua eta kalitatea hobetzea. Helburu horrekin lotutako ekintza Ecovidrio-k gainbegiratu eta onartu beharko du.
- Zalantzak konpontzeko bide zuzen bat eskura jartzea, webgunearen eta posta elektronikoaren bidez.
- Hondakinen bilketarekin lotutako emaitzak itzultzea, herritarrei eskerrak emanez hondakinak bereizteko orduan egindako ahaleginagatik eta bereizten hasteko edo ondo egiten jarraitzeko animatuz.
- Etxeko hondakinak bereizteko herritarren partaidetza aktiboa eta arduratsua sustatzea etxebizitza, merkataritza nahiz industria arloan.
- Herritarrek hondakinen kudeaketa arloan egindako iradokizunak eta ekarpenak biltzea.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

9.3. Justifikazioa

Ezinbestekotzat jotzen da ingurumenaren arloko informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat egitea, hurbileko ekintzekin eta komunikazio-teknologia berrien laguntzarekin, hala, Urola Kostan sortutako hondakinak berrerabili eta birziklatzeko emaitzak hobetzen jarraitzeko, gaikako bilketa-zerbitzuak, Garbiguneak, birziklapen-etxolak eta Udal Elkarteak martxan jarritako ekimenak gehiago ezagutu daitezen bultzatuz.

Kanpainan zehar egin eta erabiliko diren argudioak eta materialak landu beharko ditu enpresa adjudikaziodunak, ondoren herritarren artean nahiz webgunean eta sare sozialetan zabaltzeko.

Egokiena iruditzen zaion proiektua proposatu ahal izango du adjudikaziodunak −baldintza-agiri honetan adierazitakoa betez−, ondoren baloratu ahal izateko. Aurrez, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen onartu beharko dituzte adjudikaziodunak proposatutako argudioak eta edukiak.

9.4. Hartzailea

Herritarrak, oro har.

9.5. Jardueraren deskribapena

Herritar guztiengana zuzendutako kanpaina izango da. Sare sozialak erabiliko dira informazioa zabaltzeko, hainbat formatutako informazio- eta dibulgazio-ekintzak egingo dira, webgunerako edukiak landuko dira eta posta elektroniko bidez jasotako kontsultei erantzungo zaie.
Ekintza hauek egitea proposatzen da:

a) Kanpaina eguneratu, mantendu eta zabaltzea: webgunea, sare sozialak eta kontsultarako mezuak kudeatzea eta komunikazio-estrategia zabaltzea.

Gutxienez, lan hauek egin beharko dira:

- Kanpainaren lema eta irudia eguneratzea, eta lema sinple, labur eta ezaguterraz bat aukeratzea, aurreko kanpainekin lotuta dagoena diseinu-lerro koherente bat izango duena eta Udal Elkarteko kanpainen sormen-lerroekin bat etorriko dena.
- Udal Elkarteko ingurumen-zerbitzuaren webgunea, sare sozialak eta posta elektronikoa mantendu, eguneratu eta kudeatzea.
- Kanpainarekin lotutako sare sozialen kanalak kudeatu eta dinamizatzea (twitter, instagram, Facebook…).
- Birziklapenarekin eta hondakinekin lotutako eduki digitala sortzea (Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako helburuak, EBren ekonomia zirkularraren paketea eta ingurumenarekin lotutako beste batzuk).
- Online komunikazio-estrategia bat martxan jartzea, aurretiaz egindako kanpainak Udal Elkarteko webgunearekin, sare sozialekin eta arreta-kanalekin lotuko dituena.

b) Informazio- eta dibulgazio-kanpainak

Ekintza berriak aurrera eramateko, segidan aipatzen diren materialak beharko dira, gutxi gorabehera. Material horietan guztietan, kanpainaren diseinua, lema eta edukiak jaso beharko dira:

- Eduki digitala.
- Biniloak: gehienez 200x200 cm-ko 6 binilo inprimatu eta jarri beharko dira bilketa-zerbitzuko kamioietan.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

Urola Kostako Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek aurreko kanpainetan erabilitako material-ereduak eskainiko dituzte, eta, beharrezkoa bada, kanpaina honetara egokitu eta eguneratu beharko dira.

c) Inkesta parte-hartzailea

Gutxienez inkesta parte-hartzaile bat egingo da, ekintzaren gogobetetze-maila, landutako gaiaren inguruko ezagutzak, izan ditzakeen eraginak eta hobetu beharreko alorrak zehazteko eta iradokizunak egiteko.

Inkesta egiteko, honako alderdi hauek landu beharko dira: edukia eta diseinua, mezu elektronikoak bidaltzea, inkestak inprimatzea eta emaitzen neurketa eta analisia.

Paperean, online, posta elektroniko bidez edo telefonoz zabaldu ahal izango da inkesta parte hartu nahi duten eta datuak eman dituzten herritarren artean, edo datu-baseetatik hartu ahal izango da informazio hori. Halaber, kanpainako ekintzaren bat helburu duten pertsona edo kolektiboek parte har dezakete. Webgunearen bidez, telefonoz edo sare sozialen bidez erantzun ahal izango dute.

Gutxienez bi datu-bilketa egin beharko dira −kontratuaren hasieran eta amaieran−, eta datu horiek txosten analitiko batean ustiatuko dira.

9.6. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzaileak baldintza-agiri honetan zehazturikoa betez egindako proposamenetik eratorritako ekintzen araberakoak izango dira.

9.7. Tenporizazioa

Egikaritze-epea 10 hilabetekoa izango da (2023ko irailetik 2024ko ekainera).

9.8. Adierazleak

Enpresa adjudikaziodunak kanpaina osoan zehar egingo den etengabeko ebaluazio- eta segimendu-sistema diseinatu beharko du.

Kanpainako une zehatz batzuetan egin beharko da ebaluazioa: aurretiaz, helburu-taldeen aurretiazko egoeraren eta ezagutzen ebaluazioa egin daiteke (aurre-testa), egingo diren ekintzen arabera; kanpaina aurrera eramaten den bitartean (beharrezkoa bada ekintzak egokitu edo hobetzeko eta, hala, ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko); eta, azkenik, amaieran, emaitzak ebaluatzeko. . Egindako inkesta guztietan lortutako emaitzak aztertu beharko dira.

Lortutako emaitzei zorroztasuna ematen dioten teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabili beharko dira, eta, horiek aurrera eramateko, kanpaina ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa biltzeko egokitzat jotzen diren tresnak eta txantiloiak erabili beharko dira.

Horretarako, adierazle batzuk proposatu beharko dira dira jarduera bakoitzeko helburu-publikoaren arabera, baina, aldi berean, ebaluazioa osatzeko, beste adierazle batzuk aplikatu beharko dira, kanpainaren eraginkortasuna/inpaktua ezagutzeko, besteak beste, alor hauetan:

- Herritarren motibazio, inplikazio eta partaidetza maila.
- Urola Kostako Udal Elkarteko bilketa-sistemaren barruan, kanpainak duen onarpen maila.
- Herritarrek hondakinak kudeatu edo ingurunea zaintzeko orduan duten portaeran, jarreran edo

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

ezagutzan izandako aldaketak.
- Kudeaketa-emaitzen ebaluazioa (Udal Elkarteko ingurumen-zerbitzuak emandako datuekin), kanpainako ekintzen bidez proposatutako helburuak zenbateraino betetzen diren aztertzeko.
- Dibulgazio-materialen ebaluazioa (eskuragarritasuna, onarpen maila eta dibulgazio-materialen erabilgarritasuna).
- Kanpainaren ebaluazio digitala.

II. TITULUA LANGILEAK, BITARTEKO MATERIALAK ETA LANEN ZUZENDARITZA ETA GAINBEGIRATZEA

10. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratuak irauten duen bitartean, enpresa adjudikaziodunak deskribatutako kanpainako lanen izaera eta beharretara egokitu beharko ditu langileak, bitarteko material eta teknologikoak eta antolaketa osoa, baldintza-agiri honetako eskakizunak betetzeko eta dagozkien betebeharrak betetzeko.

10.2. Langileak

Adjudikaziodunak kontratatu beharko ditu bere eskaintzan jasotzen diren lanak egiteko beharrezkoak diren langile guztiak. Inolaz ere ez da lan-harremanik egongo kontratua betearazten duten langileen eta Urola Kostako Udal Elkartearen artean.

Hortaz, Udal Elkarteak ez dauka inolako erantzukizunik adjudikaziodunaren eta haren langileen arteko lan-harremanen arloan.

Adjudikaziodunak aldizkako koordinazio- eta segimendu-bilerak egin beharko ditu Urola Kostako Udal Elkarteko arduradunekin. Halaber, egunero posta elektroniko, telefono… bidez harremanetan egoteko moduan egon beharko du.

10.3. Bitarteko materialak

Adjudikaziodunak bitarteko eta azpiegitura nahikoak izan beharko ditu lanak aurrera eramateko (bulegoak, sistema informatiko finkoak eta mugikorrak, jantziak, etab.).

Eskaintza egitean, kontratu hau aurrera eramateko eskura jarritako bitartekoak zehaztu beharko ditu, eta horien ezaugarri nagusiak deskribatu beharko ditu (kokapena, azalera, antolaketa eta ezaugarri nagusiak).

Halaber, zerbitzuaren beharren arabera beharrezkoak diren garraio-elementuak izan beharko ditu adjudikaziodunak.

Beharrezko makineriaren kostu totalak (ibilgailuen alokairua, erregaia eta beste ustiapen-gastu batzuk) enpresa adjudikaziodunaren kargura izango dira.

10.4. Lanak zuzendu eta gainbegiratzea

Hamahiru (13) hilabeteko epean egin beharko dira lanak, Urola Kostako Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen zuzendaritza eta gainbegiradapean.

Urola Kostako Udal Elkarteak kontratuaren zuzendari lanak egingo dituen teknikari bat izendatuko du, baldintza-agiri honetan eta emandako agindu eta jarraibideetan zehazturiko baldintzak betetzen diren

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

gainbegiratu eta egiaztatzeko eta kontratuko alderdi zalantzagarriak argitu edo interpretatzeko. Horretarako, lanen segimendua, ikuskaritza eta kalitate-kontrola egingo du, eta baztertu egingo ditu baldintza-agiri honetako helburuak lortzeko baldintzak betetzen ez dituztenak.

Hauek dira kontratuaren arduradunaren funtzioak:

- Baldintza teknikoen agiri honetan eta administrazio-baldintza partikularren agirian zehazten direnak.
- Egoki iritzitako ikuskapenak egitea, martxan dauden lanen dokumentuetara sarbide librea izatea eta oharrak egitea.
- Amaitutako lanen likidazioa egitea.

Kontratuaren arduradunak eskuordetu egin ahal izango ditu bere lanak aurrera eramateko egoki iruditzen zaizkion funtzioak.

Lanen fase guztiak bete ondoren, adjudikaziodunak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du kontratuaren arduradunak, hala badagokio, kontratistak lan horiek osatu, zuzendu edo berriro egin ditzan.

Halaber, enpresa adjudikaziodunak arduradun bat izango du (kontratuaren koordinatzailea). Arduradun hori etengabe harremanetan egongo da Urola Kostako Udal Elkarteko zerbitzu teknikoekin eta jarduera-gaitasun nahikoa izango du kontratua egikaritu eta ondo amaitzen dela bermatzeko. Aldi berean, kontratatzailearen eta, bereziki, administrazioak izendatutako kontratu-arduradunaren hizketakide gisa jardungo du.

Aldi berean, enpresa kontratistak ordezko bat izendatu beharko du, arduradun hori ez dagoenean edo aldi baterako falta denean, funtzio berak beteko dituena.

Adjudikaziodunak edo haren mendeko pertsonek lanaren martxa ona edo zehazturiko egikaritze-programa arriskuan jartzen duten edo oztopatzen duten ekintzak edo omisioak egiten badituzte, kontratuaren arduradunak neurri zehatz eta eraginkorrak hartzea eskatu ahal izango du, hitzartutakoa ondo egikaritu ahal izateko (horretarako, langile bat lanetatik baztertzeko aukera ere izango du).

Enpresa adjudikaziodunak erraztasunak eman beharko dizkie kontratuaren arduradunari eta harekin lan egiten dutenei kontratuaren edozein fasetan egindako lanak egikaritu eta ikuskatzeko, eta, horretarako, bere instalazioetara sartzen utzi beharko die.

11. AMAIERAKO MEMORIA

Enpresa adjudikaziodunak amaierako memoria indibidualizatu bat egin beharko du (Word eta pdf formatuan) kontratu honek xede duen lan bakoitzari buruz. Memoria horretan, egindako ekintzaren eraginkortasunari buruzko ondorioak zehaztu beharko dira: lortutako helburuak (kualitatiboak nahiz kuantitatiboak) eta erabilitako adierazleak.

Jarduera amaitu osteko 10 egun balioduneko epean (gehienez) aurkeztu beharko da memoria hori, jarduera bakoitzean erabilitako dibulgazio-material guztiekin batera (pdf editagarrian eta jpg edo antzeko formatu batean).

Kontratuaren azken hilabetean, egikaritze-laburpen bat (Word eta pdf formatuan) eta laburpen bisual bat (Power-point formatuan) egin beharko da, euskaraz eta gaztelaniaz, ondoren zabaltzeko, egindako jarduera eta lorpen guztien berri ematen duena.

Urola Kostako Udal Elkartea
IFZ G20392064 • Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz • Tel. 943 89 08 08 • harrera@urolakosta.eus •
www.urolakosta.eus

EGINBIDEA: Plegu hauek Lehendakaritzaren ebazpen bitartez onartu direla adierazteko, 2023ko martxoaren 24an.

Sinatzailea	IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA Izaskun Altuna Mariezkurrena
Kodea	Z 23/0102
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA3L3LR.jSxC
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu	